

liburujaturun

v. irakurketa jokoa



irakurtzea

gustatzen
zaizu?

BI PERTSONARENTZAKO AFARIA
IRABAZTEA GUSTATUKO LITZAIZUKE?

Orduan... LIBURUJATUN bat zara!

Leioako Udalaren Kultura Sailak, Udal Liburutegiak eta Euskara Zerbitzuak, bosgarren urtez irakurketaren inguruko joko bat proposatzen dizue!!

Irakurtzeak misterioz beteriko mundu anitzetara garamatza. Batzuk gustura sartzen dira bidaia horretan, baita irrikitan sartu ere; beste batzuei, ordea, izugarri kostatzen zaie letretako zubi hori zeharkatzea. Horregatik, liburuez gozatzeko eta irakurketaren alde ludikoa azpimarratzeko Liburu-jatun Irakurketa Jokoa kaleratzen dugu.



ekar[®]


ARTAZA
JATETXEA

zelan

partehartu

Proposatu ditugun bost liburuak irakurri eta horien inguruan egingo ditugun galderei erantzun. Ondorengo liburu interesgarri haiei buruzko galderak honako foileto honetan topatuko dituzu (gogoratu martxoaren 26ra arte daukazula denbora):

- 1 Aulki jokoa (Uxue Alberdi).
- 2 Kometa ehiztaria (Khaled Hosseini).
- 3 Nora ez dakizun hori (Irati Jimenez).
- 4 Berandu da gelditzeko (Unai Iturriaga).
- 5 Eztia eta ospina (Patxi Zubizarreta).

Liburua irakurri duzuela jakiteko sei itaun egingo dizkizuegu. Galderek erantzun erreza dute; irakurketa arrunt batez, ez bereziki intentsiboa, erantzun dakieke. Orri zuri batean emango dira erantzunak, ordenagailuz, edota eskuz eginez gero argi eta garbi ulertuko dira, ondoan galderen zenbakia edo galderak idatzita dituztelarik.

Bi kategoria daude: euskara eta gaztelania. Kategoria bakoitza bestearerikiko independentea da, beraz, batean edo bietan parte har daiteke. Jokoa 16 urtetik gorakoentzakoa da.

Otsailaren 1ean liburuen inguruko galderak argi-

taratu dira eta martxoaren 26an izango da liburu guztien erantzunak emateko azken eguna. Erantzunak Kultur Leioako Liburutegira astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 20:00etara, eraman daitezke edo liburutegia@leioa.net helbidera bidali Liburuja-tun jokorako dela zehaztuz, zuen datu guztiak jarritz (izena, abizena, helbidea, udalerrria, telefonoa, NAN-a, jaiotze data). Erantzuna emailez bidaltzen baduzue liburutegitik konfirmazio erantzun bat jaso beharko duzue.

Liburuei buruzko galderak honako web horrietan ere topa ditzakezu:
www.bibliotecaspublicas.es/leioa/
www.kulturleioa.net

KULTUR LEIOA

Jose Ramon Aketxe plaza 11 – 2 eta 3
48940 LEIOA
94 6072574



sariak

2010eko apirilaren 23an, ostirala, arratsaldeko 20:00etan sari banaketa izango da Kultur Leioan.

Sariren bat lortzeko, liburuak irakurri direla demostratu baino ez da egin behar; horretarako liburu-jatunak liburu bakoitzeko hiru galderari erantzun behar die ondo. Kategoria bakoitzetik baldintza hori betetzen duten guztiak sari hauen zozketan sartuko dira:


- Bi pertsonarentzako afora Artaza Jatetxean.
- ELKAR Megadendetarako 50 euroko 6 bale indibidual.

Oharra: sariak jasotzeko zozketara etorri beharko da. Sariduna, edo bere ordezkariaren bat, zozketara ez badator sari hori berriro ere zozketatuko da.

Zozketatutako sariez gain, bertan parte hartutako guztiei oparitxo bat emango zaie (beti eta liburu bakoitzeko hiru galdera erantzun badituzte) eta horren ostean lunch goxoa eskainiko da.

IRAKURLE ELEBIDUN SARI BEREZIA

Bi kategoriatan parte hartzen duten guztiei, beti eta liburu bakoitzean puntuazioaren erdia gutxienez lortzen badute, Irakurle Elebidun Sari Berezia emango zaie. Saria Kultur Leioako Lagun Txartela da, hau da, 2010 urte osoan Kultur Lagunek dituzten abantaila eta deskontu guztiak izango dituzte.



egutegia

AZAROA, ABENDUA ETA URTARRILA
liburuak irakurri
OTSAILAREN 1etik MARTXOAREN 26ra
galderak erantzun eta liburutegian utzi
APIRILAREN 23an
sari banaketa

Irakurri liburuak, galdera hauei erantzun eta entrega itzazu:
Animatu eta bihurtu zaitez LIBURUJATUN!!

Antolatzaileek oinarri hauetatik sor daitezkeen zalantza, interpretazio edo ezustekoak argituko dituzte, eta euren irizpidea nagusi izango da gainerakoen aldean. Joko honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazi nahi dizugu inprimaki honetan adieraziko dituzun datuak Kultur Aretoko Lehiaketetako partaideen datu-fitxategi batean erregistratuko direla; horren helburua deialdia izan duen lehiaketako hautagaiak ezagutzea da; informazioa Leioako Udalaren Kultur Arloko langile eta arduradunek jasoko dute eta fitxategiaren arduraduna Leioako Udala izango da (Elexalde Auzoa, 1).



galderak

KOMETA EHIZTARIA

Khaled Hosseini

- 1 Nola "hil" zen Hassanen ama?
- 2 Zein izan zan 1974. urteko gabonetan Hassani egin zioten oparia?
- 3 Zein urtarotan hegarazten zituzten kometak?
- 4 Nola saldu zuen Amirrek Hassan kometak ehi-zatu zuten egun hartan?
- 5 Zer eskatu zion Asseffek Amirri Sohraben truke?
- 6 Zer egin zuen Sohrabek Amirrek agian ume-zurtz-etxera itzuli beharko zuela esan zionean?

BERANDU DA GELDITZEKO

Unai Iturriaga

- 1 Nongoa zen Mikel?
- 2 Zenbat taldekide zituen Zuria Beltz musika taldeak?
- 3 Zer ikusi zuen Mikelek Santutxun Otxarkoagako elkarrizketatik bueltan etorri eta gero?
- 4 Noren hitzaldia entzutera joan ziren Dionisos eta Mikel Likinianora?
- 5 Zer eskatu zion Jokinek (Anen lehengusuak) Mikeli soldata kobratu zuen egunean topo egin zutenean?
- 6 Zertarako nahi zuen Dionisos Star pistola zaharra?

NORA EZ DAKIZUN HORI

Irati Jimenez

- 1 Zein zan amuma Rosaren afaririk gogokoena?
- 2 Nor zan John Sebastian Navarre eta zertara joan zan Nebraskara?
- 3 Zein izan zan Eliasen lanbidea?
- 4 Zer gertatzen zen Martinek munduko hainbat hiritan eginiko hamaika argazkitan?
- 5 Nori zuzenduak ziren Eliasek idatzitako mila eta bat postalak?
- 6 Nola hil zen Sara, Noraren ama?

AULKI JOKOA

Uxue Alberdi

- 1 Teresan ama Artzapera joian gizonarentzako kaltzerdiak jostera, baina erabiltzen zuen haria oso kiribila eta erabilia zen. Ba al dakizu zergatik?
- 2 Zerk ezberdintzen zuen lehengo zaharren eta gaur egungo gazteen arteko zilborrak?
- 3 Zergatik lortzen zuen Eutimiok hainbeste denbora igarotzea portuko urpean?
- 4 Zertarako erabiltzen zuten arrantzaleek berakatz atala poltsikoan?
- 5 Zergatik igotzen zen Martiña egurrezko aulkitxora dendan saltzaile zegoenean?
- 6 Zergatik fusilatu zuten txurreroa?



EZTIA ETA OZPINA, ALBERDANIA

Patxi Zubizarreta

- 1 Noren pausuei jarraituz heldu nahi du Parisera Selim protagonistak?
- 2 Selim Marrakexen bizargin baten etxean zegoen apopilo, eta bizargin horrek seme bakarra zuen, Mahjubi izenekoa. Zer gertaera lazgarri gertatzen da Mahjubirekin Selim euren etxean dagoen bitartean?
- 3 Zer egiten du Selim protagonistak, Utmarren laguntzaz, Gasteizen dagoenean, Estherren arreta erakartzeko?
- 4 Liburuaren Bigarren Atalean narratzailea, hau da narratzailea ez da hortik aurrera Selim? Nor da narratzailea hortik aurrera?
- 5 Eta azken kapituluan, "Bidasoako Paterak" izenekoan (Hitzatzea alde batera utzita) ikuspuntua berriz aldatzen da. Nola kontatzen dira gertaerak azken kapitulu horretan?
- 6 Pariseraino heltzea lortzen du Selimek?

